



## **2015EKO MARTXOAREN 6KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabosteko martxoaren seian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel eta.

Kepa Goenaga Alikostes eta Maialen Aldasoro Aranburu zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

### **I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2015eko otsailaren 20ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

### **II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 124 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA SEI MILA BOSTEHUN ETA HOGEITA BOST EURO ETA HAMASEI ZETIMO (26.525,16 €)takoa eta 2015eko 8 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEI MILA ZORTZIEHUN ETA HAMABOST EURO ETA HAMAZAZPI ZENTIMO (20.815,17 €)takoa, onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

### **III.- UR HORNIDURA KONTAGAILUEN HORNIDURARAKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA.-**

Lazkaoko etxeko ur hornidurako ur kontagailuen hornidurarako kontrataziorako osatutako espedientea ikusi ondoren, eta Hirigintza, obra eta zerbitzuetako batzordeak kontratazio espedientearen aurrean egindako kontratazio proposamena, horrekin batera doan dokumentazioa eta gaiarekin lotutako gainontzeko gorabeherak ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, zera erabaki du:

- 1.- Argitaratutako jardunbide negoziatu bidez kontratatzeko espedientea eta kontratua arau-petzeko administrazio-baldintza zehatzen orria onartzea, bai eta laurogei mila euroko (80.000,00 €) gehi honi dagokion B.E.Zaren gastua ere.
- 2.- Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.
- 3.- Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

#### IV.- EUSKARAKO DIRU LAGUNTZAK.-

Euskara Batzordeak egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzar-  
rak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako erabaki hauek hartu di-  
tu:

- Lazkao Txiki Musika Eskolari.- 2015eko aurrekontuan Lazkao Txiki Musika Eskolaren-  
tzat aurreikusita dagoen dirulaguntzatik bigarren erdia, hau da, zortzi mila (8.000 €)  
euro ordaintzea.

#### V.- KULTURAKO DIRU LAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzar-  
rak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Lazkao Txiki Musika Eskolari.- Martxoaren 9tik 16rako kultura astearen antolaketarako  
aurreikusita dagoen 3.000 €ko diru laguntzatik mila eta bostehun (1.500 €) aurrera-  
tzea.
- Antsoategi Elkarteari.- 2015eko urtarrilean, Astotxo Egunean, Gipuzkoako Asto Lehia-  
ketaren antolaketagatik lehen aurreratutako bi mila eta bostehun (2.500 €) euroz gain  
orain bi mila zortziehun eta hemeretzi (2.819 €) euro ematea.
- Zawopi Elkarteari.- 2014ko abenduaren 25eko jaiotza biziduna eta 2015eko urtarrila-  
ren 5eko errege kabalgata eta 11n egindako Astotxo Egunean "Egiptora Ihesa"ren an-  
tzeslanaren antolaketarengatik, lehen aurreratutako mila eta bostehun (1.500 €) euroz  
gain orain beste mila bostehun eta laurogeita hamazazpi euro eta laurogeita bost zen-  
timo (1.597,85 €) ematea.

Eta eguneko gai zerrendatik kanpo, eta presazko izaera modura gaia gaurko bilku-  
ran erabakitzeko guztiek ontzat emanda, ondorengo gaiaz eztabaidatu eta erabakitzen da:

#### VI.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren,  
Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

##### Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 14-11-06 zbk.dun esped.: egoitzak sartu dela eta 2014ko abenduaren 26tik zerbitzuan  
baja ematea.
- 14-11-02 zbk.dun esped.: onuradunaren familiak hala eskatuta, 2015eko martxoaren  
5etik zerbitzuan baja ematea.

##### Presoen familientzat garraio laguntza.-

- 12-13-03 zbk.dun esped.: senitarteko bat preso duela eta, garraiorako, hilero, hilean  
137,36 € ematea.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- Esp.zbk: 15-01-001: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 125€ ematea otsailetik abendura eta mantenimendu gastuetarako hilean 46,25€ ematea otsailetik abendura. Ematen zaiona Ematen zaiona eskatutakoaren %100 a da.
- Esp.zbk: 15-01-002: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 125€ ematea otsailetik abendura eta mantenimendu gastuetarako hilean 46,25€ ematea otsailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 a da.
- Esp-zbk: 15- 01-003: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilean 92,5€ ematea otsailetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 a da.
- 111 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 90,65€ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %98 da.
- 103 zbk.dun esp: etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 91,58€ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %99 da.
- 489 zbk.dun esp.: etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 91,58€ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %99 da.
- 700 zbk.dun esp.: etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 92,5€ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 135 zbk.dun esp.: etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 90,65€ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %98 da.
- 692 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 83,25€ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura eta alokairuko gastuentzako hilean 225€ ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %90 da.
- 670 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako 80€ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100da.
- 09-01-007 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 73,08 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %79 da.
- 09-01-017 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 92,5€ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 12-01-002 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 92,5€ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.



- 09-01-018 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 82,33 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura eta alokairuko gastuentzako hilean 222,5€ ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %89da.
- 13-01-007 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 46,25€ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura eta alokairuko gastuentzako hilean 250€ ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 13-01-11 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilean 92,5€ ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 14-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilean 82,33€ ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %89 da.
- 14-01-004 zbk.dun esped.: lehen mailako premietarako gastuetarako hilean 33,6€ ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da
- 09-01-008 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilean 71,22€ ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %77 da
- 14-01-011 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilean 77,7€ ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %84 da
- 13-01-008 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilean 92,5€ ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da
- 14-01-002 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 78,63€ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura eta alokairuko gastuentzako hilean 212,5 ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %85 da.
- 14-01-008 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 68,45€ko diru laguntza ematea urtarriletik otsailera eta alokairuko gastuentzako hilean 185€ ematea urtarriletik otsailera. Ematen zaiona eskatutakoaren %74 da.
- 14-01-005 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilean 92,5€ ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da
- 14-01-006 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilean 92,5€ ematea urtarrileko hilean. Ematen zazona eskatutakoaren %100 da
- 14-01-007 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimenduko gastuetarako hilean 46,25€ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura eta alokairuko gastuentzako hilean 125€ ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 14-01-009 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimendu gastuetarako hilean 92,5€ ematea urtarriletik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

## VII.- BILERAREN AMAIERA.-



Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large loop followed by a horizontal line and a vertical stroke.



A handwritten signature in blue ink, consisting of several vertical strokes.